

KANALAK

Turistekin harremanetan jartzeko, zenbait komunikazio-kanal erabiliko ditugu. Sortu dugun aplikazioa Play Storen eta App Storen egongo da eskuragarri “Donostrip” bilatzen bilatzailean, bi plataformetan guztiz doan.

Alde batetik, gure aplikazioa zabaltzen dituzten folletoak egingo ditugu eta hotel, kamping eta aterpeetan utziko ditugu eta turismo bulegoetara ere eramango ditugu, jendea turismo bulegora joatean, turismo bulegokoa gure aplikazioa ezagutzera emateko jendeari.

Bestetik, *influencer* batzuekin jarriko gara harremanetan gure aplikazioa anuntziatzeko, “Sisters and the city” adibidez.

Sare-sozialetaz baliatuko gara jende gehiago erakartzeko. Instagram, Twitter eta Facebook-en Donostrip izenarekin aurkituko gaituzue. Hashtag bat sortuko dugu, gure aplikazioan jarritako Donostiako monumentuekin eta gomendatutako jatetxeekin ateratako argazkietan jartzeko, horrela sare moduko bat egingo dugu Donostrip aplikazioa erabiltzen dugun guztien artean. Hashtag horrekin igotako argazkiak, gure aplikazioan jarriko ditugu dagokion monumentu edo jatetxearekin, horrela aplikazioa ikusten duen pertsona balorazio errealak ikusi ahalko dituzte.

Aplikazioan agertzen diren tabernak, modu solidario batean, soberan duten janaria emango digute eta gu daukagun lokalera eramango dugu. Tabernaz taberna gu geuk pasako gara janaria biltzeko. Lokalean, janaria tupper batzuetan sartuko dugu eta eskaleei eta jateko aukera ez dutenei banatuko diegu, dohainik.

Etxegabekoentzako aterpeetan (Abegi Etxea, Gauko Aterpea, Hotzaldi,...) gure lokal solidarioari buruzko informazioa emango dugu, horrela bertan dagoen jendea gure lokaletik pasatzeko eta elikatzeko aukera izateko.